



COVID-19aren pandemiaren a n a l i s i a N a f a r r o a n

Sindemia batean egindakoa eta ikasitakoa

Pedro Gullón Tosio

Sindemia batean egindakoa eta ikasitakoa

Pedro Gullón Tosio

Osasun publikoko irakaslea. Alcalako Unibertsitatea

2020ko martxotik hona denok bizi dugun errealitate horietako bat da honako hau: ez gara gai jadanik hiru urte pasa direla barneratzeko. 2019ari buruz hitz egiten dugu iaz izan balitz bezala, eta uste dut esan dezakegula pandemiak hautsi egin duela denbora ulertzeko genuen modua. Kontua ez da soilik denbora konprimatu dela. Hiru urte horietan badira asteak –2020ko martxoko eta apirileko hilabeteak bezala– urteak diruditenak, eta utzi dizkiguten ondorioek zenbait hamarkadatan iraunen dute.

Aurrean duzuen txostenak nolabait lortzen du denboraren distortsio hori haustea. Horixe du berezi. *Anales del Sistema Sanitario de Navarra* aldizkarian argitaratzen den monografikoan, Nafarroan eta haren osasun sisteman azken hiru urteetan gertatutako guztia aztertzen da, gainerakook gai izan gaitezen egintzak ordenatzeko, zentzua emateko eta etorkizunean pentsatzeko. Hau ez da pandemiako gertakarien bilketa lan edo storytelling bat, nahiz eta horretarako ere balia dezakegun. Ezta ere osasun sistemak egindako lanaren ebaluazio formaleko prozesu bat, nahiz eta horretarako ere balia dezakegun. Hori baino gehiago da. Hemen, eskura dauden tresna zientifikoak erabili ditugu oraindik ere bizi dugun gertakari bat aztertzeko eta irakaspenak emateko. Ez da lan erraza; gainera, txostenaren zati bat bizirik mantendu behar da, hurrengo hilabeteetan eguneraketak egin ahal izateko.

Arestian esaten ari nintzen aurrean duguna ez dela pandemiaren kudeaketari buruzko ohiko ebaluazio bat. Nahiz eta, zorionez, ebaluazioaren kontzeptua semantikoki gero eta urrunago dagoen erruduntasunaren bilaketatik, oraindik ere badu konnotazio hotz bat, ebaluatzen ari diren prozesuetatik urruntzen dena. Monografiko honetan bestelako ikuspegi bat erabili da. Hemen, Nafarroako osasun sisteman gertatu diren aldaketen protagonistek berek kontatzen dute nola askatu den azken hiru urteetako mataza. Eta hori berariazko ikuspegi zabal batekin egiten da.

Richard Hortonek –*The Lancet* aldizkariko editore buruak– esan zue-nean “Hau ez da pandemia bat, sindemia bat baizik”, mahai gainean jarri zuen errealitate bat, pandemiak bizkortu zuena: ezin dugu ikuspegi sekto-

rialik izan arazo konplexuen aurrean. Nafarroako osasun sistema ingurune konplexua da, eta toki bateko aldatetek gainerakoetan eragiten dute. Pandemia ez da larrialdietan hasten eta ospitaleko alta ematean bukatzen; aitzitik, tartean sartzen dira ikerketa, osasun publikoaren zaintza, laguntza sistema komunitario eta soziala, toki-erakundeak, osasun laguntza edo komunikazioa.

Horregatik, ahalegin kolektibo bat koordinatzen saiatu gara; horixe izan da gure lan xumea, zeren eta berriz ere azpimarratu nahi baitut Nafarroako osasun sistemak berak erabaki duela zorrotz aztertzea zer gertatu den, zer egin zitekeen desberdin, eta zer egin beharko genukeen beste sindemia, pandemia edo osasun larrialdi batzuen aurrean, tamalez bai baitakigu uneren batean iritsiko direla. Ahalegin kolektibo hori ez da posible kapitulu bakoitza koordinatzen eta idazten duten pertsonak erdigunean egon gabe. Ezinbestekoak dira, halaber, Anales del Sistema Sanitario de Navarra-ko editore taldearen ahalegin nekaezina eta txosten honetan parte hartu duten kanpoko ikuskatzaileen taldea.

Monografiko hau ez da ebaluazio bat, ez da gertatu denaren edo izan zitekeenaren istorio bat. Monografiko hau etorkizunerako tresna bat eta aukera bat da. Ea horri heltzeko gai garen, etorkizuneko denbora antolatu ahal izateko.

Alcalá de Henares, 2023ko otsaila